

Artearen Historia Irakasteko Oinarri Metodologikoak

1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgaia:** Artearen Historia Irakasteko Oinarri Metodologikoak
- **Modulua:** Modulu Espezifikoa. Giza eta Gizarte Zientziak
- **Izaera:** hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Argibel Euba Ugarte

2. Irakasgaiaren laburpena

Artea gizartearen eta kulturaren funtsezko elementu gisa ulertuta, haren lanketa historiko sendo, kritiko eta esanguratsua bilatuko dugu irakasgai honetan. Historiarekiko hurbilketa osatuagoa eta sormen nahiz ondare artistikoaren balioespina sustatzea ahalbidetuko du horrek.

Oinarri eta helburu horietatik abiaturik, Artearen Historiaren irakaskuntzarako oinarrizko irizpide, tresna eta estrategiak ezagutuko ditugu, baita baliabide didaktikoak bilatu, sortu eta egokitu ere, curriculumaren ezaugarriak eta askotariko irakaskuntza-testuinguru, -profil eta -egoerak aintzat hartuta.

3. Gaitasunak

Oinarrizko kompetentziak:

- CB6. Ideiak garatu eta/edo aplikatzean originalak izateko oinarria edo aukera ematen duten ezagutzak edukitzea eta ulertzea, askotan ikerketa-testuinguru batean.
- CB7. Ikasleek beren ikasketa-arloarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan) eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna aplikatzen jakitea.
- CB8. Ikasleak ezagutzak integratzeko eta iritziak formulatzearen konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, informazio osatugabea edo mugatua izanik, beren ezagutzak eta iritziak aplikatzearekin lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak barne hartzen dituen.

- CB9. Ikasleek beren ondorioak – eta horiek sostengatzen dituzten azken ezagutzak eta arrazoiak – publiko espezializatuei eta ez-espezializatuei jakinarazten jakitea, modu argian eta anbiguotasunik gabe.
- CB10. Ikasleek ikasteko trebetasunak izatea, ikasten jarraitu ahal izateko, neurri handi batean beren kabuz edo autonomiaz zuzendu beharko duten moduan.

Zeharkako konpetentziak:

- CT1988 - Giza eskubideen, berdintasunaren, generoaren, kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren aldeko jarrera proaktiboak sortzea.
- CT1989 - Espezialitatearen eremuko berezko lengoaia zientifikoa erabiltzea.
- CT1990 - Ingelesezt irakasten diren ikasgaietan ingelesa ahoz eta idatziz erabiltzea.
- CT1991 - Irakaskuntzari balioa ematea eta garapen profesionala eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea.

Konpetentzia orokorrak:

- Dagokion espezializazioko materietako curriculumaren arabeko edukiak ezagutzea eta, orobat, ikaste-irakaste prozesuei buruzko ezagutza didaktikoak. Lanbide Heziketarako, ostera, eskatuko da dagokion lanbidearen ezagutza.
- Ikaste-irakaste prozesua planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, heziketa-prozesuak indartuz irakaskuntza bakoitzari dagozkion konpetentziak eskuratzeko. Horretarako, ikasleen hasierako mailari eta prestakuntzari erreparatuko zaie, modu indibidualean zein zentroko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean.
- Informazioa (ahozkoa, inprimatutakoa, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia) bilatzea, lortzea, prozesatzea eta komunikatzea; informazio hori ezagutza bihurtzea eta ikaste-irakaste prozesuetan espezializazioari dagozkion materietan aplikatzea.
- Ikastetxe batean ezarriko den curriculuma zehaztea, lankidetzan arituz hura planifikatzen; metodologia didaktikoak garatzea eta ezartzea, taldekoak zein pertsonalizatuak, ikasleen aniztasunera egokituta.
- Ikasketa-guneak diseinatzea eta garatzea, arreta berezia eskainita honako arlo hauei: ekitatea, heziketa emozionala eta baloreena, eskubide- eta aukera-berdintasuna gizon eta andreen artean, hiritar-heziketa eta jendartean bizitzea erraztuko duten giza eskubideekiko begirunea, erabakiak hartzea eta etorkizun iraunkorra eraikitzea.
- Estrategiak eskuratzeko ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta, orobat, pentsatzeko eta erabakitzeke trebetasunak garatzeko; horretarako, haren autonomia, konfiantza eta iniziatiba sendotuko dira.

- Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazio-prozesuak ezagutzea; beharrezko jendarte-trebetasun eta -konpetentziak bereganatzea, ikasgelan ikasketa eta bizikidetzak bultzatzeko eta diziplina-arazoei aurre egiteko eta gatazkak konpontzeko.
- Jarduera formalak eta ez-formalak diseinatzea eta gauzatzea, zentroa parte-hartze eta kultura-gune bihurtze aldera kokatuta dagoen ingurunean. Tutore- eta orientatzaile-lanak egitea lankidetzan eta modu koordinatuan; irakaskuntza- eta ikerketa-prozesuen ebaluazioan, ikerketan eta berrikuntzan parte hartzea.
- Hezkuntza-sistemaren araudia eta antolaketa instituzionala ezagutzea eta, orobat, ikastetxeetan ezartzen diren kalitate-hobekuntzarako ereduak.
- Irakaskuntzaren ezaugarri historikoak ezagutzea eta aztertzea, baita haren egungo egoera, aurreikuspenak eta garai bakoitzeko errealitate sozialarekiko harremana ere.
- Familiei informazioa eta aholkuak eskaintzea beren seme-alaben ikaste-irakaste prozesuari buruz zein haien orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalari buruz.

Konpetentzia espezifikoak:

- 24180. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailetan Artearen Historia irakasteko egungo proposamen kurrikularrak ezagutzea.
- 24181. Artearen Historiaren eta haren adierazpide materialen balioa nabarmentzeko gai izatea, Giza eta Gizarte Zientzien eremuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailetan.
- 24182. Diziplinaren oinarri kontzeptualak, zientifikoak eta metodologikoak eskuratzea, IKTen eta teknologia berrien erabileraren aurrerapenak txertatuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailen eskakizun kurrikular espezifikoei erantzuteko.
- 24183. Artearen Historiaren dimentsio historiko-kulturala, dimentsio estetiko-formala eta kode bisualak ulertzeko gai izatea, analisirako, gogoetarako eta egungo kulturaren ulermenerako beharrezko tresna gisa.
- 24184. Artearen Historia ikaskuntza autonomo eta kritikorako eta ezagutza berrien kudeaketarako tresna gisa aintzatesteko gai izatea, eta haren aplikagarritasuna aitortzea alor profesionalean nahiz eguneroko bizitzan.

4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)

1. Artearen Historia: esparrua, ekarpenak eta helburuak.
2. Curriculuma eta egokitzapena.

3. Programaziorako irizpideak.
4. Baliabide didaktikoak.
5. Materialen sorkuntza gidatua.
6. Aurkezpena eta ebaluazioa.

5. Bibliografia

- Álvarez de la Prada, Gloria (1996). “Cómo elaborar unidades didácticas de Historia del Arte”. *Íber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* 8:69-78.
- Ávila Ruiz, Rosa María (2001). *Historia del arte, enseñanza y profesores*. Sevilla: Díada.
- Brito, Débora Madrid (2015). “El cine en la didáctica de la historia del arte”. *Iber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* 80:57-64.
- Candau, María Jesús (2006). “Percepción y didáctica del comentario de arte”. *Íber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* 49:74-82.
- Checa Cremades, Fernando; María de los Santos García Felguera eta José Miguel Morán Turina (1980). *Guía para el estudio de la historia del arte*. Madril: Cátedra.
- Faerna, José María eta Adolfo Gómez Cedillo (2015). *Arteari buruzko oinarrizko kontzeptuak*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Fernández Arenas, José (1990). *Teoría y Metodología de la Historia del Arte*. 2. edizioa. Bartzelona: Anthropos.
- Freixa, Mireia et al. (1990). *Introducción a la historia del arte*. Bartzelona: Barcanova.
- Insa Rufach, Joan Jesús; María Llum Peirón Pena eta Angelina Solà Toà (1991). *Método para la lectura de obras de arte: Estudio de paradigmas desde la prehistoria al romanticismo*. Madril: Bruño.
- Jiménez, José (2010). *Artearen teoria*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Lajo, Rosina eta José Surroca (2010). *Artearen lexikoa*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Mendizábal, Juan Ignacio (2010). *Artearen historia, 2. Batxilergoa*. Donostia: Erein.
- Morante López, Felisa eta Ana María Ruiz Zapata (1994). *Análisis y comentario de la obra de arte: Estudio de obras de pintura, arquitectura y escultura*. Madril: Edinumen, 1994.
- Plazaola, Juan (2003). *Modelos y teorías de la historia del arte*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

- Prats, Joaquin (ed.) (2011). *Didáctica de la Geografía y la Historia*. Secretaría General Técnica, 2011. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=466834>.
- Santamaría, Javier eta Mikel Asensio (2003). “Paradigmas utilizados por el profesorado de bachillerato en Historia del arte”. *Íber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* 37: 18-29.
- Trepát, Cristòfol A. (2003) “Didácticas de la historia del arte: Criterios para una fundamentación teórica”. *Íber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* 37:7-17.
- ——— (2003). *El taller de la mirada: una didáctica de la història de l’art*. Lleida: Pagès.
- ——— (2006). “Las pruebas de corrección objetiva en la enseñanza y aprendizaje de la historia del arte”. *Íber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* 49:57-73.
- Trepát, Cristòfol A. eta Montserrat Rovira (2012). “Las pruebas de corrección objetiva y el aprendizaje de la historia del arte en el bachillerato”. *Enseñanza de las ciencias sociales: revista de investigación* 11.
- Triadó, Joan Ramon et al. (2016). *Artearen historia*. Bartzelona: Vicens Vives.
- Viñuales, Jesús (1996). *El comentario de la obra de arte: Metodologías concretas*. Madril: UNED.